

Euskara ikasleentzako diru laguntzak: oinarriak

Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei dirulaguntza emateko modua arautzea.

Dirulaguntzaren gaiak.

Diruz lagunduko da 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31 arte egindako ikastaroen matrikula gastua. Kilometrajea, egoitza eta otordu gastuak ez dira diruz lagunduko. Dirulaguntza hauek, maila bakoitzari dagokionez, gehienez ere, hiru urtetan kobratu ahal izango dira.

Diruz lagunduko dira Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak.

Ikasleek dirulaguntza aurreratzea eskatzen ahal dute, matrikulatzeko garaian. Dirulaguntza aurreratua kobratzea eskatzen dutenek deialdi honetan zehaztutako baldintzak eta eskatutako dokumentazioa, bi epetan, bete eta aurkeztu beharko dute: otsailean eta ikasturte amaieran.

Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.- Aurrekontuetan, gehienez ere, aurreikusi den diru-esleipena (13.000 euro), behar den epean eta behar den moduan, aurkezten diren eskaeren artean banatuko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

2.- Matrikularen % 100 ordainduko zaie honakoei:

- .- Ikastaroak irauten duen bitartean errenta bermatua jasotzen duten eskatzaileak.
- .- Ikastaroak irauten duen bitartean errenta aitortpena egiteaz salbuetsita dauden eskatzaileak.
- .- Familia ugaria duten eskatzaileak.

3.- Gainerakoen kasuan, eskatzailearen bizikidetzaren errenta-mailaren arabera ordainduko zaie.

.- Errenta bermatua jasotzen ez dutenei, familia ugarikoak ez direnei edo errenta aitortpena egiten dutenei matrikularen ehuneko jakin bat ordainduko zaie (% 100, % 75 edo % 50), honako irizpideak kontuan hartuta:

- .- Dirulaguntzak ebazteko eskatzailearen bizikidetzaren errenta-mailaren arabera gordin ponderatuak hartuko dira kontuan. Ponderazio hori egiteko formula zehatz bat erabiliko da.

.- Eskatzailearen bizikidetza-unitatearen urteko diru-sarrera gordin ponderatuak LGS halako 3 edo handiagoak baldin badira, matrikularen % 50 jasoko du.

.- Eskatzailearen bizikidetza-unitatearen urteko diru-sarrera gordin ponderatuak LGS halako 1,5 eta halako 3 artekoak baldin badira, matrikularen % 75 jasoko du.

.- Eskatzailearen bizikidetza-unitatearen urteko diru-sarrera gordin ponderatuak LGS halako 1,5ekoak edo hortik beherakoak baldin badira, matrikularen % 100 jasoko du.

Dena den, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 804,00 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu krediturik ez badago, Mankomunitateak eskabide guztien artean, proportzionalki esleituko du dirulaguntza inongo lehentasunik gabe.

Bizikidetza-unitatea eta diru-sarreraren ponderazioa.

Bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinen ponderazioa hiru adierazle hauen arabera zehaztuko da:

.- Bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinek zenbat aldiz hartzen duten zergaldiko LGS, dirulaguntza eskatu aurreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

.- Bizikidetza-unitateko kideen kopurua.

.- Bizikidetza-unitatean zenbat kidek sortzen dituzten diru-sarrerak, gutxienez ere diru-sarrera guztien % 20 emanda.

Bizikidetza-unitatearen diru-sarreraren ponderazioa egiteko honako formula hau erabiliko da:

$$DSP = FD \times N \times A$$

DSP: Bizikidetza-unitatearen diru-sarrera ponderatuek zenbat aldiz hartzen duten lanbide arteko gutxieneko soldata.

FD: Bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinek zenbat aldiz hartzen duten lanbide arteko gutxieneko soldata.

N: Ponderazio koefizientea, kontuan hartuta bizikidetza-unitateko zenbat kiderentzat eskatzen den dirulaguntza.

A: Ponderazio koefizientea, gutxienez ere bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinen %20 ekartzen duten kideen kopuruaren arabera.

Ponderazio koefizienteak honako hauek izanen dira:

N:

–Kide bateko bizikidetza- unitateak: 1,00.

–2 kideko bizikidetza- unitateak: 0,94.

–3 kideko bizikidetza- unitateak: 0,89.

–4 kideko bizikidetza- unitateak: 0,82

4 kidetik gora, ponderazio balioari 0,06 kenduko zaio kide bakoitzeko.

bizikidetza-unitateko kide bat edo gehiago minusbaliatuak edo 65 urtetik gorakoak badira, berez egokitutako hurrengo tartekoa edo tartetakoia izanen da aplikatu beharreko N koefizientea.

A:

–Bizikidetza- unitatean pertsona bakar batek ekartzen baditu diru-sarrerak: 0,77.

–Bizikidetza- unitatean bi pertsonak ekartzen badituzte diru-sarrerak: 0,75.

–Bizikidetza- unitatean hiru pertsonak edo gehiagok ekartzen badituzte diru-sarrerak: 0,73.

.- Familiaren diru-sarrerak.

Familiaren diru-sarrera gordinak dira laguntza eskatzen duen bizikidetza- unitatetik datozenak. Horiek frogatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren edo azken aitortpenen fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, Foru Ogasunak edo Udalak konpultsatua; bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako egitera behartuta. Bestela, familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko adierazpena aurkeztuko du eskatzaileak, agirien bidez.

Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 1etik irailaren 15era bitartekoa izango da. Epe hori luzaezina izanen da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskatzaileek honako dokumentazio guztia batera aurkeztu beharko dute Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko erregistroan (Basaburuko Udala. 31866, Jauntsarats) edo dagokien herriko udaletxe edo Euskara zerbitzuan:

- a) Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraituta.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia. Aurreko urtetako eskatzaileek ez dute aurkeztu beharko agiri hau.
- c) Bizikidetzaren unitatea zenbat kidek osatzen duten egiaztatzen duen agiria.
- d) Euskaltegiaren eginiko matrikularen ordainagiria
- e) Euskaltegiaren agiria. Bertan honako hauek adieraziko dira: ikastaroaren hasiera eta amaiera data, ordaindutako matrikula, izandako asistentzia, egindako urratsak edo mailak eta gainditu diren ala ez.
- f) Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarrerak egiaztatzeko dokumentazioa. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren azken aitortpenaren edo aitortpenen fotokopia konpultsatua, Foru Ogasunak edo Udalak konpultsatua. Bestela, familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko adierazpena aurkeztuko du eskatzaileak, agirien bidez.
- g) Gizarte Zerbitzuaren egiaztagiria, zeinetan jasotzen baita eskatzaileak Errenta bermatua jasotzen duela.
- h) Foru Ogasunaren egiaztagiria, zeinetan jasotzen baita errenta aitortpenik ez dela egin, hura egitera beharturik ez egoteagatik.
- i) Familia ugaria duten eskatzaileen kasuan, egoera hori egiaztatuko duen agiria.
- j) Gizarte egoera zehatz baten ondorioz deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzeko ezintasuna duten eskatzaileen kasuan, Mankomunitateak dagokion eskualdeko gizarte zerbitzuari txosten bat eskatu ahalko dio eta, txostenak jasotakoa egokitzen edo nahikotzat hartuz gero, baldintzetan salbuespena egin eta eskatzaileari dirulaguntza ematea erabaki ahalko du. Holako kasuetan euskaltegiak ez badizkie erabiltzaileei kuota kobratzen, beka euskaltegiari ordainduko zaio, euskaltegiarekin hala adostu ondoren.
- k) Aitortpena, helburu horretarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako eta haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden.

Hori dena zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz egin ahal izango da. Hona helbidea:

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea

Asuncion, 7

31866 Jauntsarats (Basaburua)

Telefonoa: 948 503035

Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Euskara Zerbitzua
Gabari etxea
31878 Mugiro (Larraun)
Telefonoa: 948504400

Basaburua, Imotz, Odieta eta Ultzamako Euskara Zerbitzua
San Pedro, 8
31797 Larraintzar (Ultzama)
Telefonoa: 948305134

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzua
Elbarren, 1
31880 Leitza
Telefonoa: 948510814

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak, eta baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira:

- a) Diruz lagundutako ikastaroaren % 80an parte hartu duela frogatzea.
- b) Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietan errolatuta egotea.
- c) Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekiko eta Mankomunitatea osatzen duten udalekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko).

Baldintza hauek dirulaguntza aurreratua kobratzea eskatzen dutenek epe bakoitzean bete beharko dituzte. Horietako eperen batean ez badituzte betetzen goian aipatutako baldintzak, epe horretarako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko dute.

Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Ebazpena.

Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakariak emango du Mankomunitateak eginkizun horretarako sortutako Batzorde bereziaren irizpena ikusita.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere; dirulaguntza esleitzeko ebazpena eman eta biharamunetik kontaktzen hasita. Ebazpenean onartzen ez diren eskaerak ezetsizat joko dira.

Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren pagatu ere; banku transferentzia eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

Dirulaguntzak aurreratzea eskatu duten ikasleei bi zatitan ordainduko zaizkie, otsailean, ikasturteko lehenengo lau hilabeteen justifikazioa aurkeztu ondoren eta bigarren zatia, jasotako eskaera guztiak ebatzi ondoren. Banku transferentzia bidez eginen da eskatzaileak adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

Dirulaguntzen itzulketa.

Dirulaguntza lortu ahal izateko bete behar diren baldintzaren bat faltsutu edo ezkutatu bada, edo eskatzaileak ez badu frogatzen ikastaroaren %80an parte hartu duela, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Bateragarritasuna.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen dirulaguntza eskatu ahal izateko, derrigorrezkoa da 2021-2022 ikasturterako xede berbera duen Euskarabidearen dirulaguntza aurretik eskatzea. Euskara Mankomunitatearen dirulaguntza Euskarabidearen dirulaguntzaren osagarria izanen da, ez baitaiteke gain-finantzaketarik gerta; hortaz, bien artean gastuaren %100 gainditzen bada, Euskara Mankomunitateko dirulaguntza jaitsiko da portzentaje horretara iritsi arte.

Datuen babesa.

Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 23ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Auzibidea.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

a) Berraztertzeke errekurtsua, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Leitzan, 2022ko apirila

Iñigo Alduntzin Garcia
Mankomunitateko Lehendakaria

Dirulaguntza eskabidea

Eskatzailearen datuak:

✓ Izen-abizenak:

✓ NAN:

✓ Helbidea:

✓ Posta kodea:

✓ Herria:

✓ Telefonoa:

✓ E-posta:

✓ Kontu korrontearen zenbakia:

2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31 bitarteko matrikula gastuak:

€

Data eta sinadura

ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publikok edo pribatuk emana.
- Dirulaguntza eskatu diela honako erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskaerarik eginez gero, mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, sinatzen dut